

Baxu Zifratua



1. irudia. Basso Continuo-a


BARROKO GARAIO KONPOSIZIO ASKOTAN **BASSO CONTINUO** (BAXU JARRAITU) IZENENKO PARTE BAT ZEGOEN. ZATI HONEK BAXUAK JARRAITU BEHARREKO MELODIA ZUEN, ZENBAKI ETA ALTERAZIO BATZUEKIN.

EZ, EZ, EZ... EZ ZEN EXISTITZEN **BASSO CONTINUO** IZENENKO INSTRUMENTURIK! ZATI HAU INSTRUMENTU BIREKIN JOTZEN ZEN: FA-REN KLABEAN JOTZEN ZUEN **TXELOA** EDO **FAGOTA** BEZALAKO INSTRUMENTU BATEKIN ETA **KLABEA** BEZALAKO TEKLA DUN INSTRUMENTU BAT.

ENTZUNALDIETAN, FA-REN KLABEKO INSTRUMENTUAK **IDATZITA ZEUDEN** NOTAK BAKARRIK JOTZEN ZITUEN, BAINA KLABE JOTZAILEAK **EMANDAKO NOTA ETA IKURRETATIK** ABIATUTA **INPROBISATU** OHI ZUEN!



HONELA JO ZITEKEEN!




BAXU JARRAITUAREN AZPIAN AZALTZEN DIREN ZENBAKI ETA IKURRAK **BAXU ZIFRATU** BEZALA EZAGUTZEN DIRA. BAINA, GALDERA HAU DA: NOLA BIHURTZEN DUGU BAXU ZIFRATUA **AKORDEETAN**?


LEHENIK ETA BEHIN, GARRANTZITSUA DA JAKITEA FA-REN KLABEAN IDATZITAKO **NOTA** BETI DELA **AKORDEKO NOTA BAXUENA**. BAINA GOGORATU: **BAXUENA** EZ DA BETI **OINARRI-NOTA**!

BIGARRENIK, **ZENBAKIEK** BAXUAREN GAINEAN JARRI BEHARREKO **BITARTEAK** ADIERAZTEN DITUZTE, ZENBAKI BATZUK IDAZTEN EZ DIREN ARREN.

BITARTEAK BETI DIRA **DIATONIKOAK**. ETA EZ KEZKATU GEHIEGI ALTERAZIOENGATIK... ERABILI **ARMADUKO** NOTAK!



ZENBAKIRIK EZ BADAGO, GEHITU **HIRUDUN** ETA **BOSTUN** BAT BAXUAREN GAINEAN... **OINARRIZKO** ANTOLAERAN DAGOEN TRIADA BAT LORTUKO DUZU!



SEI BAKAR BAT BAKARRIK BADAGO, GEHITU **SEIDUN** ETA **HIRUDUN** BAT BAXUAREN GAINEAN ETA **AKORDE SEIDUNA** EDO **LEHEN INBERTSIOA** LORTUKO DUZU!



SEI ETA LAU BAT BADAGO, GEHITU **SEIDUN** ETA **LAUDUN** BAT BAXUAREN GAINEAN ETA **AKORDE SEI-LAUDUNA** EDO **BIGARREN INBERTSIOA** LORTUKO DUZU!



HEMEN **SOSTENITUA** SEIAREN ONDOAN DAGO, BERAZ, **SOL** SOSTENITUA IZANGO DA.



HONETAN **EZ DAGO** ZENBAKIRIK **SOSTENITUAREN** ONDOAN, BERAZ, BAXUTIK HASITA **HIRUDUNARI** JARRIKO DIOGU.



ETA BESTE HONETAN **BEKOADRO** BAT AZALTZEN DA SEIAREN ONDOAN, EZ **BEMOL** BAT... BEMOLA AGERTUKO BALITZ **DO BEMOL** JOKO GENUKE.

AZKENIK, ADIERAZITAKO **ALTERAZIOETARAKO** BEGIRATU ZEIN ZENBAKIREN ONDOAN AZALTZEN DIREN. **BERA** BAKARRIK BADAGO, BAXUTIK HASITA **HIRUDUNARI** APLIKATZEN ZAIO.

BAINA EZ EMAN BUELTA GEHIEGI HONI: KONPOSITOREAK **NOTA** BAT **TONUERDI** ALTHAGO NAHI BADU ETA **ARMADURAN** **BEMOL** BEZALA IDATZIRIK BADAGO, BAXU ZIFRATUAN **BEKOADROA** ADIERAZIKO ZEN, EZ **SOSTENITUA**.

GARAI KLASIKOAK AUERRERA EGITEN ZUEN EINEAN KONPOSITOREEK **GERO ETA GUTXIAGO** ERABILTZEN ZUTEN BAXU JARRAITUA, HORI DELA ETA BAXU ZIFRATUAREKIN BERTINA GERTATU ZEN... SALBUESPEN BATEKIN: **MUSIKAREN TEORIAKO** KLASEAK!

BAXU ZIFRATUA **GAUZATZEA** (BAXU JARRAITUAN OINARRITUTA AKORDEAK ERAIKITZEA) **ARIKETA EZINHOBEA** DA **GARAI KLASIKOAN** BEZALA KONPOSATZEN **IKASTEA** NAHI DUTEN IKASLEENTZAK!

OOOH!